

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure hornitzaile eta bazkide nagusia, alde batetik, Amsterdam hirian egoitza duten txikle- birziklapen enpresa (Gum-Tec) izango da, izan ere bere produktuak ekoizteko txikleak erabiltzen dute, baina soberan daukatena salduko digute. Dena den akordio horretara ailegatzeko, gabonetako zesta oparitu behar diegu enpresahaien akziodunei.

Ziur gaude han funtzionatu duen enpresa bat, hemen ere funtziona dezakeela, kontuan izanda horrelako proiekturik penintsulan ez dagoela.

Bestetik, jendea kalean aurkituko dituen zakarrontzi bereziak izango dira, txikleak bertan botatzeko, “zakarrontxikle” deituko ditugunak. Guk jarriko ditugu hirian, udaletxearen baimenarekin. Hauek, Vitoria-Gasteizko zaborbiltzaileen sarearekin kontaktuan jarri ondoren, eta akordio batera iritsi izanagatik, haiek bilduko dituzte guztiak eta dendara ekarriko dizkigute hilabetero, 200€-ren truke etortzen diren bakoitzean. Zakarrontzi hauen erabilera zabaltzeko, Radio Vitoria irratia 15 segunduko iragarki bat dohainik orduro jartzera eskaini da.

Oso garrantzitsuak dira guretzako, hantxe egongo direlako gure prozesuan erabiliko ditugun txikle asko.



Bestalde, guk ere lana egingo dugu honetan:

Zeina, erlazio publikoetan arituko da, hau da, dendatik hurbil dauden kaleetatik zehar igaroko da, dendari buruzko informazio jendeari eskaintzen. Horrez gain, sortuko dugun webgunearen administratzailea izango da.

Joseba, txiklearen prozesatze-lana egingo du, biltegian.

Olatzek, dendan lan egingo du, Josebaren laguntzarekin (behin eguneroko lana biltegian bukatutakoan), kontuan izanda langile gehiago behar ez direla halako denda txikian.

Eta azkenik, Mikel gure disenatzaile grafikoa izango da, denda barruan mintegi txiki bat bihurtu dugun biltegi txiki batean.